

Betekizunak

Deialdi honen xede diren etxebizitzak eskuratzeko, baldintza pertsonal, ekonomiko eta etxebizitza-premiari buruzko baldintza hauek bete behar dira:

1. Baldintza pertsonalak.

- Esleipendunak adin nagusiko pertsona fisikoak edo bizikidetza-unitateak izan behar dute. Bizikidetza-unitatetzat hartzen da bi pertsona edo gehiago elkartzea ezkontzagatik edo ezkontzaren antzeko beste harreman mota batengatik, bai eta adopzioagatik edo hirugarren mailara arteko odol-ahaidetasunagatik eta bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasunagatik ere, baldin eta etxe berean bizi badira edo bertan biziko badira.
- Esleipendunak adin nagusiko pertsona fisikoak edo bizikidetza-unitateak izan behar dute. Bizikidetza-unitatetzat hartzen da bi pertsona edo gehiago elkartzea ezkontzagatik edo ezkontzaren antzeko beste harreman mota batengatik, bai eta adopzioagatik edo hirugarren mailara arteko odol-ahaidetasunagatik eta bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasunagatik ere, baldin eta etxe berean bizi badira edo bertan biziko badira.
- Ezkontzaz lotutako edo izatezko bikoteen erregistroan inskribatutako pertsonak babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko, titulartasun partekatua izan beharko dute.

Babes publikoko etxebizitza bat erosten duten bizikidetza-unitateko gainerako kide adindunek etxebizitza horren titular izan beharko dute, partaidetza berarekin, salbu eta zuzeneko odolkidetasuneko edo adopzioa ahaidetasun-harreman baten bidez lotuta badaude.

- Etxebizitzetako baten onuradun izateko, banaka aurkezten den pertsonak, edo, gutxienez, bizikidetza-unitatea osatzen duen pertsona batek, titular gisa agertu nahi badu, Donostiarekin lotura izan behar du, jarraian zehazten diren moduren batean:
 - a) Ohiko bizilekua Donostian izatea azken bost urteetan, hiru urtez.
 - b) Azken hiru urteetan hirian lan egitea eta azken hamabost urteetako bost urtetan hirian bizitzea.
 - c) Azken hamar urteetan Donostian lan egitea.

Adierazitako denbora-tarte guztiak atzerakako eskaerak jasotzeko muga gisa ezarritako dataren aurre aurrekotik zenbatuko dira.

- Udalerri horretan bizitzeko baldintza egiaztatzeko, udal-eroldako datuak hartuko dira kontuan, eta lana lan-bizitzaren eta zerbitzua ematen den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango da.

2. Etxebizitza-premiaren baldintzak.

- Etxebizitza-premiaren inguruabarrak arlo hori arautzen duen autonomia-erkidegoko araudian ezarritakoak izango dira, bereziki martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurriei buruzkoan, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan.



3. Baldintza ekonomikoak.

- Etxebizitzak eskuratzeko gaitasun ekonomikoaren baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko irizpideak indarrean dagoen araudi autonomikoan ezarritakoak izango dira. Alde horretatik, interesdunek 2019ko kontribuzio-ekitaldiko urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dituzte, ondoren adierazten diren maximoen eta minimoen artean daudenak:
 - **"Jolastokieta" sustapena:**
 - Gutxienez: 25.000 €
 - Gehienez: 50.700 €
 - **"El Pilar" sustapena:**
 - Gutxienez: 25.000 €
 - Gehienez: 58.500 €
- Administrazio publikoen gizarteratze-politiketatik datozen errentak ez dira zenbatzen erosketako etxebizitzak esleitzeko.

Bazterketak.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutela aldez aurretik egiaztatzeagatik baztertuta gera daitezkeen pertsonak edo bizikidetza-unitateak alde batera utzita, honako hauek ere baztertuta geratuko dira:

- Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren etxebizitzan edo apartamentuen errentamendu-kontratuen ondorioz bete gabeko betebeharrak dituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak, horiek ordainpekoak edo beste mota batekoak izan, eta kontratuak iraungita egon ala ez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak tipifikatutako falta oso astun bat egiteagatik ezarritako zehapenaren ondorioz desgaitutako pertsonak.